

EZKIO-ITSASO / Hilaren bukaeran ipuin kontaketa ingelesez

Ezkio-Itsasoko Udalaren eta liburutegiaren eskutik, abenduaren bukaeran ipuin kontaketa berezi bat ospatuko da herrian. Urtero bat baino gehiago antolatzen dira eta oso gustokoak izaten dira Ezkio-Itsason ipuin kontaketak bai ume eta baita helduentzako ere. Horrela, oraingoan abenduaren 29an, asteazkena, izango da, hau arratsaldeko 17:00etan hasiko delarik herriko liburutegian bertan; Udaletxeko goiko solairuan Ipuin kontaketa berezia izango da ingelesez izango delako eta honen protagonista eta kontalaria Sarah Turtle izango da.

Honetan parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, abenduaren 13tik hasi eta 18 bitartean. Honetarako bi lekuetara deitzeko aukera egongo da: Udaletxeko telefono zenbakira 943 72 13 03; edo liburutegira 943 72 35 25. Animatu zaitezte eta parte hartu!